



BIDAYEN ITUNDUBA

Euzkadi

Urrutizkiña 1547'g

Teléfono número 1547

IDAZKOLEA TA BANAKOLEA
REDACCIÓN Y ADMINISTRACIÓN
Plaza Nueva, número 3. 2º

Idazkikutza 234'g

Apartado de correos núm. 234

BIURTTA --- ANO II

948º ZENBARKIA -- NÚMERO 948

BILBAO 1915

Iraila | Septiembre

12'na | día 12

Igendia | Domingo

FRANQUEO CONCERTADO

1915-17

Lo egongo gara?

EUZKADI, 1915-9-12

EUZKO ABENDAREN ELEZ

Lekeitio

Ene Kirikiño...

Gure Zaindari Deun Andolin jayak igaro dira ba... orduba zan: zortzi egun aundi-aundi, egunez ta gabaz, ta ez goiz-goiz etxeratu be. Ozte aundija ixan da, egun batzuetan batez-be... obe gutxiago ixan ba'zan. Au diñot jantzalari zikiñakaitik. Eta ¿zer irabazi dogu onek lotsabako dantzarijok Udal-etxe ardanlari ta ostalarijen zakeletan itzi daben diru apurragaitik, ainbat gaste ta benetan gastetxoen goguak loitu ba'dira?

Odei baltz, illun, ikaragarri bat igaro dala uri onetatik dirudit, eta erri gusti hau basatu, mazkaldu ta gexotuta itzi dabela, ba ain nabarmen neurri baga ibilli da zorakerija dantzeatzaz.

Lekeitio'k eztirudi Euzko-errija. ¿Ze bijotz-miña, Kirikiño maitia, erririk eztagola gure Lekeitio politx honetan baño... (zegaitik eztet esango egija da ta) jantza txarriagorik egiten danik... ta ixillik nagon... iñoren etxia garbitxen jua barik, geuria dogu loi ta.

(...) ¿Ezin zeinke, alkate jauna, errija apaintzen eta bere osasunen alegintzen zaren orrek, beste ainbeste alegin egin jantza nastau, zikin, zakar ori sustrai-sustraitik kentzeko? eta gaitz ba'da Lekeitio'ren ixen onagaitik eta bere semien osasun, gorputz ta arimakuagaitik, obeto, garbijago, bata-bestiagandik jantzan eragin? Zetako dira or iru txiñel, oker dabillana zuzendu, ta oitura txarrak galasoteko baño?...

ABESGOI

EUZKADI, 1916-1-4

Erri onetan iñoz ez eta ontxe asi dira ekarten *bailariñak* akeitetxe batera. Ta ¿ze lotzarija, guretzako, Kirikiño, ikusirik abertzale ba-

tzuk juaten dirala emakume orren abesti bada-ezpadakuak entzuten. ¿Olan uste dozue geure Aberriko oitura ederrak aldeztutia ta abertzaletasunak aginduten dauna betetia?...

EUZKADI 1916-1-27

Zorionez, Kirikiño, ballariñarik ez ei dakarre geyago. Poztuten gara.

Lumentxa



EUZKADI, 1917-1-9

Arrituta nago erri onetan jazoten diran gauzakin. Urtebarri egunian erri onetako "Sociedad Española Recreativa"-n ixan zan "baile" edo dantzaketa nastua, ta bertan "Jel" en aldekotzat ezautuak diran asko, neskeari ondo elduta dantzan jausteko bildurrez edo... Eta dantzari loi abertzale orren artian asko dira "Sociedad" orretako bazkidiak.

Edozeñek daki "Sociedad" ori abertzalien are-

rijua dala, bestela begitu baño eztago bere... (1)

Baita erri onetan bai-dago akeitetxe bat, eta bertara dakarrez astian-astian "bailarina" bi, ta ¡lotzatu zaitez, Kirikiño! abertzaliak pilloka doyaz toki orretara; ez bakarrik jua, ganera esaten ibiltzen dira "bailarinak" eztabela gauza txarrik egiten. Ez ba. Orrekek ekarten asi ziranetik ona, kalietan ezta entzuten besterik "Panderetera", "Ramón", "Agua que no", ta onako beste abesti uzte asko.

Abertzale batzuk emen dabiz mutiko ta neskatotxuei euzkerazko abesti politak erakusten, eta beste batzuk onetara erdel abesti ta oitura txarrak dakazenei euren laukuak eta laguntasuna emoten. Nik eztakit zer esan onako abertzaliek. Ondo ixango litxateke arazo onetan sartzia atarako eskubidia daukenak; beste-

lan zelako arpegijagaz juango gara gure Alderdija zabaltzen inora, abo-abora esango dauskue ba geu gariala inor baño txarraguak eta?

Etxe horretara juaten diran abertzaliei dirautset: Abertzalia ixateko ezta naikua jan-edan ta igora Euzkadi! esatia, Batzoki'ko illabete-sarija ordaintzia. Bakixue abertzaletasuna lenen dala Jaungoikua ta gero Lagi-Zarra, ta zuek orra akeitetxera juanagaz bijak austen dozuez. Orretara ixatiaz gure Alderdija leku txarrian ipinten dozue ta beroni kalte andija egin.

ATXABAL-KALE

(1) Ez esan geyago, ezta biar. Beraz, gixontxu orrek dira "Sociedad Española"-ko bazkidiak eta euzko-abertzaliak. Zeozer asmau dabe orraitio. - KIRIKIÑO

EUZKADI, 1917-1-14

Atsegin andijagaz irakurri dot "Atxabal-kale"-n idazkija. Idazki onek miñ aundija emon dotze abertzale batzuri, ta baita abertzale eztiranei be; zer esan be eztago zeintzuk dirian abertzale onek. Etxake atsegin ixan euren "Sociedad Recreativa"-ri emon dotzazun ixena; diñue ze eztaukola ixen ori, ezba; berak dauko ixena "Sociedad Recreativa" baña gutzako da "Sociedad Recreativa" españagarrena ¿ba'gara?

Kirikiño: ontxe edo cebilijau biar dogu Lekeitio'kuok naita-nai-ez.

Dantzaketa nastau bailariña ta erespatza naikua ezpada, etorri dira erri onetara antzezlari edo comico batzuk Cantalaburra'tik edo Jainkuak daki nundik. Onek antzeztuten ei dabez gauza onen batzuk. Lenengo egunian obenbide edo escandaloko gauzak egin edo ebezen. Notin batek bertan gauza onak ikustekuan juan zanak esan eustan lotsarija zala an ego-tia arek gauzak ikusten eta berak urten egin ebala. Laster Andaluziako errijak be txiki itxikoguz. Erespatzako artezkarriak be beren aldetik alegintxua egiten dan. Igaro dan igandian entzun genduan "Belmonte" pasodoblia. Polito goiaz cevili-jaten. Ia abertzaliak; aurka aldogun guztia egin biar dotzagu onei esamesai jaramon egin бага. Kirikiño'k be uste dot la-gunduko doskula geure izpar-ingijen bitartez zetan edo atan. Gure arerijuok Jaungoikua ta Lagizarren aurka aurrez arrez egiten dozkie ta gu **¿lo egongo gara?**

Trokolo

Euzkadi egunkaria, El Noticiero Bilbaino eta El Pueblo Vascorekin batera izan da gehien erabili dugun egunkaria Lekeitiori buruzko informazio dezente aurkitu dugulako hirurotan. Euzkadiren gaineko txostentxo bat egiteko geunden baina zertxobait luzatuko gara gure lagun Iñaki Goioganaren "Euzkadi, el gran diario nacionalista" artikuluari jarraituz. Ez zen lehen egunkari abertzalea izan, ikusi ditugu beste batzuk, baina arrakastatsuen bai. "Sin prensa diaria y bien difundida jamás tendremos la opinión de nuestro lado" idazten zuen X sinatzen zuen batek Bizkaitarra-ko artikulua baitan 1911-1-7an. Egunkari hori sortzeko lanean hasi zen bada Alderdia eta lortu behar ziren 250.000 pezetak eta gehiago batu ziren batez ere alderdikide umilei esker.

Erredakzioa osatu zutenen artean Engracio Aranzadi, *Kiskitza*, zuzendari; Alfredo Etxabe, erredaktore buru; Evaristo Bustinza, *Kirikiño*, euskara arloko erredaktore...

1913-2-lean irten zen kalera lehen zenbakia Javier Gortazarrek diseinatu zuen goiburu gotiko ahaztezinarekin. Argi zegoen egunkariaren helburua, alderdi jeltzalearen, *Comunión Nacional Vasca*-ren, organo ofizial bihurtuko zen: "Este diario será de muy amplia información, tan buena como la del mejor periódico de tierra vasca [...] Con todo, no será Euzkadi periódico de información, porque tiende a un fin más elevado, incomparablemente más noble que el frívolo noticieril [...] como órgano del Nacionalismo Vasco, anotará los más insignificantes detalles de las batallas que la causa nacional riña contra el exotismo". Ez zen bide erraza izan -lehenago ere hainbat proiektu bertan behera gelditu ziren- egunkariak publikatzea eta mantentzea garestia izaten delako. Gakoa publizitatean egoten da eta horretan Pablo Azkue artista zen. *Euzkadik* zortzi urtetan hirukoiztu egin zuen hasierako kapitala. Denborarekin *Excelsior* kirol egunkaria sortu zuten 1924an eta *La Tarde* arratsaldeko egunkariaren jabe egin ziren. Azkenean Errepublika garairako lau ziren egunkari abertzaleak: *Euzkadi*, *La Tarde*, *Excelsior* eta *La Voz de Navarra*. Amaiera kontatu beharrik ere ez dago, Francoren tropak Bilbo 1937ko ekainean hartu zutenean amaitu zen 25 urteko ibilbidea.



Bizkaiko Foru liburutegi digitala (Lau Haizeetara)
liburutegibiltegi.bizkaia.eus